

IKERTZAILE DOKTOREAK UPV/EHU_n KONTRATATZEKO DEIALDIA (2025)

Emandako eta ukatutako eskaeren behin-betiko ebazpena

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:

IKERTZAILE DOKTOREAK UPV/EHU_n KONTRATATZEKO DEIALDIA (2025)

2026ko otsailaren 11n argitaratu zen Ikerketa Errektoreordetzaren (IE) web-atarian emandako eta ukatutako eskaeren behin-behineko ebazpena.

Alegazio eta ukoak aurkezteko epea bukatutik, IGBBak Ikerketa Errektoreordetzak helarazitako alegazioak aztertu ditu. Hortaz, behin betiko ebazpen proposamena helarazi dio Ikerketa Errektoreordeari.

Ondorioz, Ikerketa Errektoreordetzak erabaki du emandako eta ukatutako eskabideen behin-betiko ebazpena bere web atarian argitaratzea. Behin-betiko onartutako eta ukatutakoen eskaerak I. eranskinean daude jasota, lortutako azken puntuazioaren arabera ordenatuta, eta argitalpen horrek interesdunei jakinarazteko balioko du.

Behin behineko ebazpenean EMANDAKO eta onarpena bidalitako pertsonen eskabideak, **BEHIN-BETIKO** izatera pasatu dira. Behin betiko ebazpena argitaratu eta 10 lanegunetara, **2026ko martxoaren 5etik 18ra (barne)**, kontratua lortzeko alegatu dituzten baldintza eta merezimenduen egiazkotasuna agertzeaz gain, deialdiaren 13.1 oinarrian adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko dute IEn. Dokumentuak pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora bidali behar dituzte eta gaian "POSTUPV 2025 DOKUMENTUAK" adierazi.

Alegazioak eta uko egiteak jazo ondoren, behin betiko ebazpenean **BEHIN BEHINEKO EMANDAKO** eskarien pertsonak 10 lanegun dituzte, **2026ko martxoaren 5etik 18ra (barne)**, onarpena edo uko egitea adierazteko, helbide elektroniko honetatik jazoetako emailera erantzun beharko dute: pre-postdoc.dgi@ehu.eus eta gaian "POSTUPV 2025 ONARPENA" edo "POSTUPV 2025 UKO EGITEA" adierazi.

Eskatutako agiriak epe barruan eta formaz aurkezten ez badira, kontratuaren formalizatzeari uko egiten zaiola ulertuko da.

Behin betiko ebazpenak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere aldi berean erabilita:

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarritz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko

39/2015 Legea, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen argitaratu eta biharamunetik hasita (administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Errekurtoak aurkezteko lekua eta modua deialdiaren 10.1. oinarrian adierazitako lekuetan aurkeztu beharko dira.

Leioan, 2026ko martxoaren 4a

Ikerketa Errektoreordetza